



EBk Kantauriko legatz kuota %1,4 txikitu du soilik

2017KO ARRANTZA KUOTAK



Aurreko urtearekiko aldea

Legatza		tonak
Ipar stocka	+%10	13.788
Hego stocka	-%1,4	6.731
Oilarra		
Ipar stocka	-%25	748
Hego stocka	-%15	1.069
Itsas zapoa		
Ipar stocka	%0	1.368
Hego stocka	+%54	3.296
Antxoa		
Ipar eta hego stocka	%0	29.700
Berdela		
Ipar eta hego stocka	+%14	38.431
Txitxarroa		
Ipar eta hego stocka	-%23	11.890
Perlita		
Ipar stocka	+%85,5	49.865
Hego stocka	+%72,9	41.375

ITURRIA: ESPAINIAKO GOBERNUA

Bi eguneko bilera luzearen ostean hartu zuten erabakia Europako Batzordeak eta arrantza ministroek eguazten goizaldeko ordu txikietan. Estatuak lortu zuten batzordeak hasiera batean nahi baino murrizketa txikiagoak egitea. Hegoaldeko stockeko legatzaren kuota —Hegoaldeko stocka Kantauri itsasoak, Cadizko Golkoak eta Portugalgoak osatzen dute—, esaterako, %1,4 murriztuko dute 2017rako, eta ez %36, Bruselak joan den urrian proposatu zuen bezala. Kantauriko txitxarro harraketak, berriz, %23 txikiagoak izango dira, nahiz eta Bruselak, hasieran, %45 jaistea gomendatu.

Ikerketa bat ireki dute haurtxo bati ustez egindako tratu txarreatik

Bizkaiko epaitegi batek ikerketa judizial bat ireki du, Barakaldoko Fiskaltzaren instantzian, hamaika hilabeteko haurtxo batek ustez jasandako tratu txarrak ikertzeko. Gurutzetako Ospitalera eraman zuten aurreko ostiralean, hainbat zaurirekin. Irekitako ikerketa judiziala Getxoko epaitegi batera eraman dute, ustez gertaerak bertan izan zirelako.

Bost adingabeetatik batek sexu-jazarpena jasan du Euskadin

Beste alde batetik, Eraikiz kolektiboak txostena plazaratu du, umei egiten zaizkien sexu abusuen inguruan. Kasu gehienak ez dira ezagutzen. 10etik 2 baino ez dira plazaratzen, ustez, familia barruan horrelako erasoak izkutatzen direlako.

Organo-emate marka hautsiko da aurten ere

Iaz, milioi bat biztanleko, 53 organo



emaile egon ziren Euskadin. Aurten marka hori hautsiko dela uste dute; izan ere, azaroaren 1era arte iazko lehen hamar hiletan baino emaile gehiago egon dira. Azken urteetako gorakadari eusten ari zaion arren, oraindik premia handia da.

San Tomas abenduaren 21ean, bai; baina zergatik?

Abenduak 21, San Tomas ospatuko dute toki askotan. Hala, bisitariak bertako produktuak dastatzeko aukera izango dute, hala nola, tradizio handia duten taloa, txistorra eta sagardoa. Horretaz gain, fruta eta barazki postuak ikusteko aukera izango da.

San Tomas feria da euskal lurraldean gehien espero eta ezagutzen den jaia. Gainera, batzuek Bilbon eta Donostian bakarrik ospatzen dela uste arren, Lekeitio, Zaldibar, Arrasate (abenduaren 22an ospatzen dituzte bertan santamasak), Hondarribia, Azpeitia, Usurbil eta Errenterian ere egiten da urtero antzinako usadioa.

Jende askok ospatzen badu ere, askoz gutxiago dira horren jatorria ezagutzen dutenak. Hainbat teoria daude, baina ia guztiek gauza bera dute oinarrian. Lursail asko alokairu sistemaren bidez kudeatzen ziren garaiak omen du jatorria. Maizterrek, baserritarrek, udazkenean jasotakoaren parte bat eramane behar izaten zioten jabeari, urteko errenta ordaintzeko. Gainera, kontuan hartu behar da Gabonak egun gutxi geroago ospatzen direla.



Jabe gehienak hirietan bizi ohi ziren, eta baserritarrek bidaia aprobetxatzen zuten askotan, bide batez, euren produktuak salgai jartzeko. Hala, ohituraren lekukoa hartu zuen tradizioak, eta bere egin zuten herri zein hirietan.

Noiz jaso ziren; hori da beste gakoetako bat. Egile batzuek XIX. mendean

kokatzen dute jatorria, halere, Arrasateko Udalaren agiri baten arabera, Gipuzkoako herri horretan 1351. urtetik egiten dute feria.

Garai horretan, gainera, hiru eguneko jaia egiten zuten, baina erromeria abenduaren 22an baino ez zuten egiten. Santamasak abenduaren 22an ospatzen dira gaur egun bertan, beste herri eta hirietan ez bezala.

Hala, abenduaren 21a noiz iritsiko zain geratu beharko dugu (abenduaren 22aren zain, Arrasatera joateko asmoa baldin badugu) fruta, barazki, kapoi, oilasko eta abereen ikuskizunaz gozatzeko. Aurten, urtero legez, nekazaritzarako makina eta tresnak, ogia, gozokiak, gazta eta ezti erosteko postuak jarriko dituzte, baita horrelako feriatan nagusi diren jakiez eta edariaz gozatzekoak ere.

Renfek Aldiriko Zerbitzua indartuko du San Tomas egunean. Hala C-1 (Bilbo-Santurtzi), C-2 (Bilbo-Muskiz) eta C-3 (Bilbo-Urduña) lineetan 6.000 eserleku gehiago eskainiko ditu bidaiari gehien espero diren orduetan, 09:30 eta 11:30 bitartean. Goizeko lehen orduetan, Bilborako noranzkoan indartuko dira tren-zerbitzuak. Arratsaldean, berriz, Renferen ohiko zerbitzuek modu mailakatuagoan eramango dituzte bidaiariak hiriburutik euren udalerrietara.

abenduak
23
estreinaldia

Hilaren 23an iritsiko da Hego Euskal Herriko zinema aretoetara 'Pixi Post eta opari-emaileak' euskarazko animazioko filma. Gabon giroko istorioa zuzendu du Gorka Sesmak haurrentzat, aniztasuna eta elkarlana ardatz hartuta. Proiektuan hiru urtez jardun du lanean Somuga ekoizpen etxeak. 4 eta 9 urte bitarteko haurrentzako lana da bereziki, Gabonetako mundu magiko horretan bereziki sinesten duten adina izaten baita.

Opari baten zain?

Abenduaren 25eko goizalde gero eta gertuago dago, eta, ondorioz, baita hurrek opariak zabalduko dituzten eguna ere. Eskolan emandako txostenak onak izan ez arren, malkoak eta negarrak alde batera utzirik, jaiki berritan korrika joango zarete Gabonetako zuhaitzera, edo nonbait zintzilik daukazuen galtzerdietara, eta bertan hainbat opari topatuko dituzue. Izena bilatu, eta azkar batean kenduko diozue oparitako papera, atzean zer dagoen jakiteko irrikaz. Eskatutako zerbait topatuko duzue ziurrenik, eta ilusioz beteko zarete. Eszena hori etxe askotan errepikatuko da Eguberri egunez.

Zuk, zer eskatu duzu egun horietarako?

Eguraldia hobera doa

Larunbatean, tarteka, zerua hodeitsu ikusiko dugu, baina bestetan giro eguzkitsuz gozatzeko aukera izango da. **Igandean**, gainera, zerua hodei gutxirekin izango da.

